

## INFORMAZIO OHARRA

### **Gazteak Mugaz Gaindi: ondorioak biltzeko unea**

*Ostiral honetan amaituko da Irunen urtarrilean abiatutako lan-programa eta bost hilabetez Euskal Herriko gazteen artean harremanak estutzea bilatu duena*

**Irun, 2023ko maiatzak 25.** Maiatzaren 26an, ostirala, Gazteak Mugaz Gaindi programaren azken saioa izango da Irunen. Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak eta Insup Formation-ek sustatua, NAEN euroeskualdearen babesarekin, urtarriletik aurrera hiru lurraldeetako gazteak izan ditu protagonista.

Gazteak Mugaz Gaindi programak mugaren bi aldeetako gazteen errealitate eta berezitasunen ezagutza bultzatu du, ahalduntzea eta lankidetzaz sustatuz, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen esparru estrategikoaren barruan. Lan kooperatiboaren bidez, parte-hartzaileek lurralde bakoitzeko gazteen egoeraren diagnostikoa egin dute, eta jarduera-ildoak eta proposamen eraldatzaileak egin dituzte topikoak eta aurreiritziak gainditzeko eta dauden indarrak aprobetxatzeko.

Orain arte izandako bilkuretan esparru desberdinen inguruan jardun dira: Iruñean elkar ezagutzeari, aurreiritziei eta estereotipoei buruz (urtarrila), Baionan hizkuntza eta kultura komunari buruz (otsaila), Beran gazteriaren ongizatean eragiten duten faktoreei buruz (martxoa) eta Hendaian jasangarritasunari eta trantsizio ekologikoari buruz (apirila).

Maiatzaren 26an, Irunen, Gazteak Mugaz Gaindi taldeak osoko bilkura itxia egingo du, ordura arte jasotako emaitzak, ondorioak eta proposamenak kideen artean partekatzeko. Ostean, Eusko Ikaskuntzak azken txostena landu eta, ekainerako aurreikusita, ezagutzara emango du.

## NOTA INFORMATIVA

### **Gazteak Mugaz Gaindi: momento para conclusiones**

*Este viernes concluye en Irun el programa de trabajo iniciado en enero y que durante cinco meses ha buscado estrechar lazos entre jóvenes de Euskal Herria*

**Irun, 25 de mayo de 2023.** El viernes 26 de mayo tendrá lugar en Irun la sesión final del programa Gazteak Mugaz Gaindi, impulsado por Eusko Ikaskuntza, el Consejo de la Juventud de Navarra e Insup Formation, con el apoyo de la Euroregión NAEN, que desde el mes de enero protagonizan jóvenes de los tres territorios.

Dentro del marco estratégico de la Euroregión Nueva Aquitania-Euskadi-Navarra, el programa Gazteak Mugaz Gaindi fomenta el conocimiento de las distintas realidades y peculiaridades de la juventud de ambos lados de la muga promoviendo su empoderamiento y colaboración. Mediante trabajo cooperativo, sus participantes han realizado el diagnóstico de la situación de la gente joven en cada uno de los territorios, y han trazado posibles líneas de actuación y propuestas transformadoras para superar tópicos y prejuicios mutuos y para aprovechar las fortalezas existentes.

En las sesiones celebradas hasta ahora se han tratado varios aspectos: en Pamplona se trabajó el conocimiento mutuo, los prejuicios y los estereotipos (enero), en Baiona se centró en la lengua y la cultura comunes (febrero), en Bera versaron sobre factores que influyen en el bienestar de la juventud (marzo) y en Hendaia sobre sostenibilidad y transición ecológica (abril).

El 26 de mayo, en Irun, Gazteak Mugaz Gaindi celebrará una sesión plenaria a puerta cerrada en la que pondrán en común los resultados, conclusiones y propuestas realizadas hasta la fecha. Posteriormente, Eusko Ikaskuntza elaborará un informe final que se hará público, previsiblemente en junio.